



DIAGNOSTIKOA
2017ko Abendua

Doako alea - Tirada 300 ale

Editorea



Lea Ibarra Udal Mankomunazgoa

Elexaldea 1 - 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

Tel: 94 684 29 82

Fax: 94 684 44 21

leaibarra@bizkaia.org

Aholkularitza teknikoa:



Arritxu Zelaia

zelaia.arrantxu@gmail.com

Diseinua eta maketazioa:



Plugin Estudioa (Gaizka Muñoz Etxebarria)

Munitibar auzoa 1, 1. esk

48381 MUNITIBAR (Bizkaia)

Tel: 670 913 901

info@pluginestudioa.com

Laguntzailea:



AURKIBIDEA

1. ATARIKOAK	5
2. LEA IBARRA LAGUNKOIA	7
Helburua	7
3. METODOLOGIA	8
Diagnostikoa osatzeko urratsak	8
Talde eragilea	9
Eztabaida taldeak	10
Profesional eta zaintzaileen eztabaida taldea	11
Komunikazioa	11
4. DIAGNOSTIKOA	12
Demografia	12
Garraioa	14
Etxebizitza	14
Adinekoentzako Egoitzak	15
Gizartean parte hartzea	15
Komunikazioa eta informazioa	15
Gizarte Zerbitzuak eta osasunekoak	15
Errenta pertsonala	16
5. EDADETUEN TALDEEN DESKRIKAPENA	17
6. ALDERDI OROKORRAK	22
Lea ibarra mankomunitatea	24
7. ALDERDI OROKORRAK HERRIZ HERRI	27
Amoroto	27
Aulesti	29
Gizaburuaga	32
Mendexa	35
Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz	38
8. BALORAZIOA	41
9. AURRERA BEGIRAKOAK	42
10. ERANSKINAK	45
Eranskina I : Inkestak	45
Eranskina II: Dublineko adierazpena	47

1. ATARIKOAK

Kaixo, danoi:

Lea Ibarra eskualde txikia da, inguru menditsuan dagoen eskualde txikia. Gure txikitasunean, beti euki dogu alkarlanean jardun beharra, eta horrek egin gaitu handi.

Kasu honetan be, alkarlanean ekin deusagu. Izan be, herri lagunkoien proiektua bost herrion artean egitea erabagi dogu; Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto eta Mendexa eskutik ibili gara beste behin be.

Herrietan eta eskualdean, gero eta edadetuagoa da jentea eta gero eta handiagoa da gizartean honek osotzen daben segmentua.

Gaur egun, edadean aurrera egin arren, zeresan asko dauka jente honek, eta euron bizi kalidadea bermatzea danon zeregina da, eta baita be, eurok daukien jakintza kontuan hartzea egunerokotasunean eta aurrera egitean.

Holan bada, proiektu honen bidez, bizitzan esperientzia gehien pilotu daben pertsonok daukiezan preminak jakin gura izan doguz, eta pertsona honek ahaldundu, herrion politiketan zeresana euki daiela, berauek kontuan izanda, berauek dinoenagaz, berauen esperientziatik, ikusitako problemak zeintzuk diren identifikau... Azken batean, eurokin batera, eskutik, esateko daukiena ondo entzunda, diagnostikoa egin gura izan dogu, zer premina dagoen jakiteko.


Edadetuaren parte-hartzeagaz diagnostiko hau egitea izan da lehenengo helburua. Gero, diagnostikoa eukita, ekintza plana egitea izango da hurrengoa, udalok zein mankomunidadeak bost herrietako edadetuaren bizi kalidadea hobetzeko zer egin geinken garbi izteko.

Hortik aurrera, Munitibarko, Aulestiko, Gizaburuagako, Amorotoko eta Mendexako politikariok egin beharko dogu ahalegina, ahal dan neurrian, egindako eskabideak beteteko edota kanpoko erakundeei euren zerbitzuak pertsona honeei errezteko eskatzeko, gure eskumeneko gaiak ez diranean.

Holan bada, diagnostikoa egiten parte hartu daben guztiei eskerrak emonaz amaitu gurako neuke, kontuan izanda euron aportazioa ezinbestekoa dala berauen zein parte hartu ez daben beste guztien bizi kalidadea hobetzeko. Hemendik aurrera be, holako konpromisoa eta parte-hartze maila izatera gonbidatu gura neukez, eurok egindako behar honek danentzako onura asko eukiko dauz eta.

Eta amaitzeko, eurek egindako diagnostikoa geure egingo dogula esan gura neuke, eta konpromisoa hartu gure esku dagoen dana egiteko, berauekandik urtendako preminak beteteko.

Beste barik, animo eta jarraitu danon onerako beharrean.



MIKEL ANTSOTEGI JAIO

Lea Ibarra Mankomunazgoko Lehendakaria

Eskerrik asko proiektu honen lehenengo pausoan parte hartu duten guztiei, edadetu, zaintzaile, ordezkari, teknikari eta profesionali.

Begoña Intxausti	Nati Elexpuru Kareaga	M. Jesus Muniozguren
Victor Abadia	Maribi Elordi	Pablo Okamika Gabiola
Mari Angeles Aldekogarai	Jesus Erezuma	Gregorio Okamika
Aurora Altuna	Jose Luis Espilla	Jose Luis Omar
Mercedes Alzaa	Begoña Etxebarrieta	Rosa Mari Omar
Puri Anakabe	Victor Gabiola	Jose Onaindia
Mailu Anakabe	Maritxu Gabiola	Carlos Onaindia
Marisa Anakabe	Mertxe Gabiola	Andoni Perea
Luis Anakabe	Anbrosia Garetzana	Ines Sesma
Mila Anitua	Agurtzane Gogenola	Josefa Telleria
Encarna Anitua	Jose Antonio Goikoetxea	Iñaki Torrealdai
Jose Luis Ansorregi Ramon Arana	Jabier Goikoetxea	M. Angeles Txakartegi
M ^a Luisa Aranguena	Mari Kruz Goitiandia	Juan Miguel Txakartegi
Juan M. Aransolo	Prantziska Gojenola	Kontxi Txurruka
M ^a Esther Arizaga	Javier Guenaga	Maria Jesus Uberoaga
Bizente Arostegi	Marilu Guenaga	M. Carmen Uberuaga
Juan Migel Arostegi	Elena Guenetxea	Pribatu Unamuno
Andresa Arrate	M. Luisa Ibaibarriaga	Begoña Unamuno
Eugenio Arriaga	Juan Anastasio Ibaibarriaga	Carmen Unamuno
Juanita Arriaga	Edurne Iturraspe	Rosarito Unamuno
Pedro Mari Arriaga	Angel M. Iturraspe	Nieves Unamuno
Juanita Arriaga	Eugenio Jaio	Gloria Uriarte
Jose Mari Arriola	M.Loli Kobeaga	Juan Uriarte
Arantxa Arritola	Dominga Laka	M. Esther Urionaguena
Teresa Astorkia	Braulia Laka	Aintzane Urizar
Ana Mari Astorkia	Mikel Laka	M. Milagros Urkiaga
Francisca Atxurra	Hilaria Laka	Dominga Urrutibeaskoa
J. Ramon Barinagarrementeria	Nekane Laka	Jabier Urrutibeskoa
Trinidad Barrutia	J. Ramon Laka	Jose Zabala
M ^a Jesusa Belantegi	Marije Laka	M ^a Asun Zabala
Josune Betanzos	Alberto Lapresa	Begoña Zabala
Jesus Bollar	Juan Luis Larroskain	Maite Zabala
Mila Bollar	Rosario Larruskain	Jesus Zabalgoeaskoa
Aingeru Cardaño	Benita Lauzirika	Aitziber Zamakona
Sabin Dañobeitia	Jose M ^a Legarra	Leon Zarragoikoetxea
Petxo Egaña	Luis Mari Leniz	M ^a Eli Zarragoikoetxea
Alberto Egaña	Izaskun Lezea	Miren Zarragoikoetxea
Juan Luis Egia	Begoña Madariaga	Blasa Zelaia
Jesus Eguen	Mercedes Mallea Madariaga	Pedro Zenigaonaidia
Maritxu Eguen	Juan Martiartu	Asensio Zuazo
Maria Pilar Eizagirre	Mari Karmen Mendiguren	Txaro Zugazaga

2. LEA IBARRA LAGUNKOIA

Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto eta Mendexako udalerriek osatzen dute Lea Ibarra Mankomunazgoa. Ezaugarri geografikoak eta sozioekonomikoak oso antzekoak izaki, elkarri estuki lotuta daude, eta harreman sendo horren ondorioz eratu zuten Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa 1983an.

Kantauri Itsasoa du iparraldean, Durangaldea hegoaldean eta alde banatan, alegia ekialde eta mendebaldean, Artibai ibarra eta Busturialdea eta Urdaibaiko biosfera naturala.

Administratiboki, Bizkaiko lurralde historikoa osatzen duten zazpi eskualdeetatik mendebaldekoenean dago lurralde hau, Gipuzkoatik gertuenekoan, Lea-Artibain.

Proiektu honen bidez, Lea Ibarreko Mankomunazgoa osatzen duten herrietako adinekoei parte hartzeko esparru bat eman nahi zaie parte-hartze aktiboa eta osasungarria ahalbidetzen duten inguruko elementuak zeintzuk diren zehazteko. Proiektua garatzeaz batera, Dublingo adierazpena onartu dute Lea Ibarra Mankomunazgoa osatzen duten herriek.

Proiektu honekin edadetuak eurak protagonista bihurtu eta hitza eta lekua ematea lortu nahi da, horrela, euren errealitatearen pertzepzioa ezagutu eta definitu, eta horiek oinarritzat hartu udalerriko erabaki politikoak hartzeko.

HELBURUA

Helburu orokorra

Helburu orokorra da edadetuak gizarte bizitza eta dinamikako alderdi guztietan presente izatea, eta parte hartzea sustatu eta bideratzea epe ertaineko ikuspegiarekin. Edadetu bizi kalitatea hobetzea eta, ondorioz, mankomunitatea osatzen duen gizarte osoarena.

Helburu espezifikoak

- Edadetuak ahalduntzea, parte hartzeko prozesuen bitartez udal politiketan eragiteko.
- Gizarte sentiberatzea, zahartze aktiboaren garrantziaz eta adintsuek komunitatearentzat duten balioaz; zahartzearen alde onak ikustea.
- Adinekoekin adeitsuak diren hirien sarean izena ematea eta parte hartzea.

Faseak

Hauek dira OMEK zehaztutako faseak hiri adeitsuentzat, eta proiektu honetan ere fase horiek jarraituko dira.

Lehenengo fasea (1-2 urte)

Mekanismoak sortzea, adinekoek Sarearen zikloan parte har dezaten lortzeko. Hasierako ebaluazioa, herria adinekoei nola doitzen zaien aztertzea. Herri osoan aplikatzeko hirurteko ekintza-plan bat egitea, hasierako ebaluazio horren emaitzak kontuan hartuta. Egindako aurrerapausoak hautemateko adierazleak identifikatzea.

Bigarren fasea (3-5 urte)

OMEri hiru urterako ekintza-plan bat aurkeztea. Lehenengo fasea bete denean, eta Sareari atxiki zaionetik bi urte igaro baino lehen, hiriak ekintza-plana aurkeztu behar du, OMEk azter eta onar dezan. Behin haren oniritzia jasota, hiru urteko epea izango du ekintza-plana gauzatzeko.

Hirugarren fasea

Aurrerapausoak ebaluatzea (bosgarren urte bukaeran). Hirian egindako aurrerapausoei buruzko txostena aurkeztuko zaio OMEri, erakunde horrek ebalua dezan.

Laugarren fasea

Etengabeko hobekuntza. Hasierako ekintza-planean jasotako artean hobekuntzak izan direla erakusten duten froga sinesgarriak badaude, herria etengabeko hobekuntza-fasera pasako da. Hau da, hiri adeitsuak bost urterako plana egingo du, eta aurrerantzean ere berdin jardungo du, hau da, bost urterik behin plan bat egingo du, etengabeko hobekuntza bermatze aldera. Hiriak Sareko kide izaten jarraitu ahal izango du, baldin eta hobetzeko ekintza-planak egiten jarraitzen badu.

3. METODOLOGIA

Vancouverreko Protokoloak proposatzen dituen ikerketa diagnostikorako metodologia jarraitu dugu proiektu honetan. Protokolo estandarizatu horrek eztabaida taldeetarako oinarria eta gidoia eman digu. Ondorioz aintzat hartu ditugun alderdiak hauek izan dira:

Eraikinak eta aire zabaleko guneak

- Igarotzeko tokien egokitzapena, iristeko erraztasuna, argiztatzea.
- Berdeguneetara, paseatzekoetara, elkarrekin egotekoetara iriste erraztasuna izatea: bankuak eta itzalean dauden tokiak egotea, mugikortasuna bultzatzen duten ibilbide seguruak izatea.

Garraioa

- Komunikazioa beste hirigune batzuekin zerbitzu eta horniduretarako.
- Garraioa udalerrriaren barnean, bizilagunen sareak, ohiko hornidurak...

Etxebizitza

- Etxebizitza egokitzea, iriste erraztasuna, erosotasuna eta segurtasuna.

Begirunea eta gizarteratzea

- Harremanak auzokoekin.
- Biztanle gehiago/gutxiago egon litezkeen urte sasoiarako harremanak.
- Elkarri laguntzea.
- Babes sozialerako sareak.

Gizartean parte hartzea

- Aisia antolatzeko guneak eta/edo jarduerak (aire zabalean edo guneetan).
- Aldaketak klimarengatik eta urteko sasoiarengatik.

Komunikazioa eta informazioa

- Kanpoko informazioa eskuratzea (prentsa, telebista, irratia...).
- Udalerriko informazioa eta zerbitzu bereziak eskuratzea.
- Internetera sarbidea izatea, banda zabal unibertsalaren bidez. Satellite bidezko konexioa.

Herritarren parte-hartzea eta enplegua

- Babes sozialeko eta boluntariorantzako jarduera antolatuak eta ez-formalak.

Gizarte zerbitzuak eta osasunekoak

- Osasun zerbitzuak eskuratzea. Erraztasuna eta azkartasuna.

DIAGNOSTIKOA OSATZEKO URRATSAK

Proiektuaren garapenean 5 izan dira urrats nagusiak:

1. Talde eragilea eratzea.
2. Datu bilketa orokorra bigarren mailako iturrietatik.
3. Herrietako parte hartze taldeak bideratzea.
4. Profesionalen parte hartze taldeak bideratzea.
5. Proiektuaren komunikazioa eta dinamizazioa.

TALDE ERAGILEA

Talde eragilea osatu da ebaluazioaren dinamizazioa eta koordinazio orokorra egiteko, berau arduratu da herriz herriko parte hartze taldeak bideratzeaz. Honako kideek osatu dute:



- Mankomunazgoa osatzen duten herri bakoitzeko bi kide.
- Itsas Baserriko Elkarteko ordezkaria.
- Aholkulari-Teknikaria.

IZENA	ABIZENA	HERRIA / KARGOA
Juan Migel	Arostegi	Gizaburuaga
Jose Ramon	Barinagarrementeria	Mendexa
Aingeru	Cardaño	Munitibar
Jesus	Eguen	Munitibar
Nati	Elexpuru	Aulesti
Maribi	Elordi	Mendexa
Victor M	Gabiola	Mendexa
Agurtzane	Gogenola	Gizaburuaga
Eugenio	Jaio	Aulesti
Jose	Onaindia	Amoroto
Juan Migel	Txakartegi	Mendexa
Esther	Urionaguena	Munitibar
Maite	Zabala	Nagusiak Elkarte /Itsas Baserri
Arritxu	Zelaia	Aholkulari-Teknikaria (AZ)
Txaro	Zugazaga	Amoroto

EZTABAIDA TALDEAK

Vancouverreko protokoloan adierazten den moduan, 1.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan, biztanleen arteko harreman pertsonalak estuak izaten dira, baina, era berean, zerbitzu garrantzitsu gutxiago dituzte, edo hobeto esanda, urrunago. Esate baterako, osasun zentroak, erietxeak, zaharren egoitzak. Ingurune horietarako, metodologia moldatzea proposatzen du protokoloak eta horrela egin dugu, bai galdetegian, baita eztabaida taldeetan ere.

Herri bakoitzeko eztabaida talde bat antolatu da. Parte hartzaileei deialdi zabala egin zaie batetik, eta bestetik, gonbidapen zuzenak ere egin dira. Gonbidapen zuzenak egiteko honako irizpideak hartu dira kontuan besteak beste:

- Adina (65etik gorakoak eta 80tik gorakoak).
- Generoa
- Bizilekua: Kaleko etxebizitza, baserria, auzunea
- Lan Jarduera (baserritarra, autonomia...).

Eztabaida taldeak egin dira mankomunitatea osatzen duten herri bakoitzean eta beste bat egin da profesional eta zaintzaileekin. Parte hartze talde horietan zortzi alderdi aztertu dira: Eraikinak eta aire zabaleko guneak, etxebizitza, garraioa, begirunea eta gizarteratzea, gizartean parte hartzea, komunikazioa eta informazioa eta gizarte zerbitzuak eta osasunekoak.

Guztira 113 partaide izan dira herrietan eginiko eztabaida taldeetan, bataz besteko adina 72 urte izan da eta parte hartu duen zaharrenak 92 urte izan ditu. Profesional eta zaintzaileen taldean 7 lagunek hartu dute parte.

LEA-IBARRA

Guztira	Guztira	120
	Gizonezkoak	70
	Emakumezkoak	50

AMOROTO

Guztira	Guztira	29
	Gizonezkoak	16
	Emakumezkoak	13

AULESTI

Guztira	Guztira	41
	Gizonezkoak	26
	Emakumezkoak	15

GIZABURUAGA

Guztira	Guztira	10
	Gizonezkoak	2
	Emakumezkoak	8

MENDEXA

Guztira	Guztira	16
	Gizonezkoak	9
	Emakumezkoak	7

MUNITIBAR

Guztira	Guztira	17
	Gizonezkoak	11
	Emakumezkoak	6

PROFESIONAL ETA ZAINZAILERAK

Guztira	Guztira	7
	Gizonezkoak	6
	Emakumezkoak	1

PROFESIONAL ETA ZAINTZAILEEN EZTABAIDA TALDEA

Profesional eta zaintzaileen eztabaida talde honetako ordezkariak hau izan da:


- Oizpe egoitzako Gizarte Langilea.
- Mankomunazgoko Gizarte Langilea.
- Etxez Etxeko laguntzaileak.
- Mendexa eta Amоротoko Familiako Medikua.
- Mendexa eta Amоротoko Erizaina.
- Edadetuen Familiarteko bat.

KOMUNIKAZIOA

Bai edadetuei, bai udalerriko biztanleei proiektu honen inguruko komunikazioa hedatzea ezinbestekoa da bere helburua lortzeko eta aurrerabidean zehaztutako pausoak eman ahal izateko. Hiru komunikazio ekintza nagusi izan dira, zeharkako beste hainbatez gain:

Irudia

Irudiaren diseinuaz eta berorren aplikaziorako proposamenaz Munitibarko Plugin estudioa arduratu da. Irudi orokorra egin da eta horren herriz herriko aplikazioa ere bai.



Deialdiak (eztabaida taldeak, aurkezpenak...)

Herriko edadetuei deialdi zabala egin zaie batetik, eta bestetik, gonbidapen zuzena egin zaie finkatutako irizpideak betetzen zituztenei.

Hiru kanal erabili dira nagusiki deialdietarako:

- Zuzeneko gonbidapena.
- Udalaren komunikazioa: gutuna eta bandoa.
- Mezatan, batzar edo bestelako foroetan eginiko deialdiak.

Hedapena

Bai prozesuan, bai prozesua amaitu ostean emaitzen hedapena egin da mankomunitatearen webgunearen eta komunikabideen bidez (eskualdeko komunikabideen bidez). Txostena argitaratu eta webgunean jarriko da eskuratu nahi duen ororentzat. Txostenean jasotakoaren laburpena argitaratuko da udal aldizkarietan.

4. DIAGNOSTIKOA

DEMOGRAFIA

Biztanleriaren zahartzea gero eta handiagoa dela erakusten dute datuek eta datozen hamarkadetan areagotu egingo da joera hori. (1980 urtean EAEko zahartze indizea %32,1, 2017ko zahartze indizea %145 Iturria: INE) Mankomunazgoan parte hartzen duten herrien artean 65 urtetik gorako biztanleen batz besteko portzentajea %22,25 da, Gizaburuaga da biztanleen artean edadetuen portzentajerik txikiena duena (%19,13) eta Aulesti portzentajerik handiena duena (%27,38).

LEA-IBARRA		PERTSONAK
Guztira	Guztira	2232
	Gizonezkoak	1146
	Emakumezkoak	1086
0 - 19	Guztira	411
	Gizonezkoak	204
	Emakumezkoak	207
20 - 64	Guztira	1318
	Gizonezkoak	702
	Emakumezkoak	616
>= 65	Guztira	503
	Gizonezkoak	240
	Emakumezkoak	263


Iturria: Eustat 2017

HERRIA	ADINA	%
Amoroto	>= 65	21,48
Aulesti	>= 65	27,38
Gizaburuaga	>= 65	16,67
Mendexa	>= 65	19,13
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	>= 65	22,67


Iturria: Eustat 2017

Hauek dira mankomunitatea osatzen duten herrien adin piramideak.
(Iturria: Eustat Adierazle demografikoak 2017)


Amoroto




Aulesti




Gizaburuaga



Mendexa



Munitibar Arbatzegi-Gerrikaitz



GARRAIOA

Mankomunazgoan garraio publiko bakarra dago: autobusa. Herriaren arabera lineak eta maiztasuna aldatu egiten da. Hauek dira dauden autobus lineak:

- Bilbo-Galdakaoko Ospitalea-Gernika-Munitibar-Aulesti-Gizaburuaga Amoroto- Lekeitio.
- Bilbo-Markina-Amoroto (Oleta)-Lekeitio
- Lekeitio-Amoroto (Oleta) -Donostia
- Mendexa-Lekeitio
- Amoroto-Lekeitio

Taxi geralekua:

- Taxi geralekurik ez dago mankomunitateko herrietan.

ETXEBIZITZA

Lea Ibarra guztira 1218 etxebizitza daude, horietatik %65,9k etxebizitza nagusi izaera dute.

ETXEBIZITZAK	
Etxebizitzak guztira	1218
Familia etxebizitzak	1217
Etxebizitza nagusia	803
Bigarren etxebizitza	223
Okupatu gabeko etxebizitza	191
Establezimendu kolektiboa	1

Lea Ibarra mankomunitatea osatzen duten herrietako etxeen erosotasun indizea Bizkaiko batz bestekoaren azpitik dago (Bizkaiko Erosotasun indizea %70,20) Iturria: Eustat 2011

Etxebizitza nagusiak, dituzten instalazioen eta zerbitzuen arabera

INSTALAZIOA / ZERBITZUA	%
Txorrotako ur beroa	99,4
Bainua	98,2
Berokuntza (zentrala, banakakoa)	63
Telefono linea	90,4
Eraikinaren tutu bidezko gasa	19,8
Etxebizitzaren tutu bidezko gasa	10,4
Erosotasun-indizea	66,2

Iturria: Eustat 2011

ADINEKOENTZAKO EGOITZAK

- Eguneko zentroa dago Gizaburuagan (une honetan itxita dago).
- Oizpe Egoitza: Munitibarren dagoen egoitza honek 99 ohe ditu eta egoitza zerbitzuaz gain eguneko zentro zerbitzua ere badu.
- 3. adineko elkarrekin egoitza dute Mendexan eta Amoroton.
- 3. adineko elkarrekin eskualdeko bilerak Gizaburuagako eguneko zentroan egiten dira.

GIZARTEAN PARTE HARTZEA

Edadetuen elkarrekin daude mankomunitatea osatzen duten 5 herrietatik 4tan.

- Amoroton Kurutz Ondo Elkarrekin,
- Aulestin San Blas Elkarrekin.
- Mendexan Goi Alde Elkarrekin.
- Munitibarren San Bizenti Elkarrekin.
- Gizaburuagan ez dago elkarrekin.

Elkarrekin hainbat ekintza antolatu ohi dituzte urtean: irteerak, ikastaroak, bazkariak...

KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Euskal Herriko eta Bizkaiko ohiko komunikabideez gain eskualdeko Hitza egunkaria ere badago eskualdean, eta udal aldizkaria argitaratzen dute Munitibarreko eta Aulestiko Udalek.

GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEOAK

Gizarte Zerbitzua mankomunitatetik kudeatzen da Zuzenean kudeatzen dira bi zerbitzu; Etxez-etxe laguntza eta telelaguntza zerbitzua. Gizarte Langile 1 (emakumea) eta 7 Etxez Etxeko Langile (guztiak emakumeak) aritzen dira.

- Anbulatorioak daude herri guztietan eta gutxienez astean bitan egoten da medikua herrietan.
- Farmaziak eta botikina: Botikina dago Aulestin eta Farmazia Munitibarren. Gainontzeko herrietan ez dago.
- Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen datuak

	Emakumeak	Gizonak
Larrialdietarako laguntza jasotzen duten adinekoak		1
Mendekotasun egoeran dauden adinekoen kopurua *	34	35
Mendekotasun egoeratik diru-laguntza jasotzen duten adinekoen kopurua	27	34
Telelaguntza jasotzen dutenak *	15	8
Etxez Etxeko laguntza jasotzen dutenak	13	17

*Gutxi gora beherako datuak. Iturria: Lea Ibarra Mankomunazgoko Gizarte Zerbitzua

ERRENTA PERTSONALA

Pentsioek adinekoen kolektiboan dute eragin nagusia. Bizkaian 2016ko batz besteko pentsioa 1,131.12 €koa izan zen.

BIZKAIA	PENTSIEN BATAZ BESTEKOA
Ezintasun Iraunkorra	1,184.98 €
Erretiroa	1,319.05 €
Alarguntasuna	769.58 €
Zurztasuna	450.77 €
Bataz bestekoa	1,131.12 €

Iturria Gizarte Segurantzako Estatuko Idazkaria 2016 urtea

Lea Ibarra Mankomunazgoa osatzen duten herrietako biztanleen errenta maila Bizkaikoarekin alderatzen badugu, oso aldakorra da herriaren arabera. Alde nabarmenena Gizaburuaga eta Munitibarreko datuetan daude, Gizaburuagako datuak bataz bestekoaren goitik daude eta Munitibarrekoak behetik daude emakumeen errentari dagokionean izan ezik.

2015	BIZKAIA	AMOROTO	AULESTI	GIZABURUAGA	MENDEXA	MUNITIBAR
Errenta pertsonala eta familiarra						
Batez besteko errenta pertsonala. Guztira	19.589 €	19.728 €	19.463 €	22.428 €	19.168 €	18.409 €
Batez besteko errenta pertsonala gizonezkoak	24.899 €	23.726 €	24.486 €	25.864 €	22.845 €	20.638 €
Batez besteko errenta pertsonala emakumezkoak	14.769 €	15.431 €	14.476 €	18.146 €	15.284 €	15.851 €
Batez besteko familia errenta	40.887 €	47.225 €	42.604 €	47.313 €	43.250 €	39.285 €

Iturria Gizarte Segurantzako Estatuko Idazkaria 2016 urtea


5. EDADETUEN TALDEEN DESKRIBAPENA

EZAUGARRIAK


Honakoak izan dira edadetuen parte hartze taldeen ezaugarri nagusiak:

Lea Ibarra mankomunitatea	
Populazioa	2167
Adinekoak	483
Parte hartzaileak	113
Adinekoen artean parte hartzea	% 23,4
Bataz besteko adina	72 urte
Zaharrena	92 urte
Gazteena	55 urte

Parte hartzaileen artean multzorik nagusiena 70-80 urte bitartekoa izan da, baina 60-70 adin tartekoekin nahiko parekatuta izan da. Parte hartu dutenei inkesta pasa zaie, Ondoren agertzen dira inkesta horretatik erazutako datuak.




Emakume gehiagok hartu du parte gizonezkoek baino. Oro har, orekatua izan da generoen arteko parte hartzea, deialdia egiterakoan bereziki zaindu baita generoan oreka izan zedin.




Parte hartzaile gehienak erretirodunak dira, banakaren bat ari da lanean oraindik erretiro adina ez zaiolako iritsi.

Lan egoera




Osasun egoera normala dutela adierazi dute parte hartzaile gehienek; oso ahula dutela adierazi dutenak dira gutxiengoa.

Osasun egoera




Gehienek osasun egoera normala dutela adierazteari lotuta dago hurrengo adierazlea ere, gehienek ez baitute adierazi eguneroko jarduera egitea zailtzen dion mugarik dutenik.

Eguneroko jarduerarako mugak




Ikasketei dagokionez lehen hezkuntza amaituta dutenen multzoa da nagusiena, eta gainerakoen artean lehen hezkuntza amaitu gabe dutenen taldea da nagusi.

Ikasketak



Etxebizitza jabetzan dutela adierazi dute parte hartzaile guztiek

Etxebizitza




Parte hartzaile gehienak bikotekidearekin edota seme-alabekin bizi dira.

Bizikidetza




Etxebizitzako kide kopuruan ere datu hori baieztatu daiteke gehienetan bi kide baitira etxebizitza bakoitzeko. Parte hartzaileen %6 bakarrik bizi da.

Etxebizitzako kide kopurua




Erdiak baino gehiagok elkarteren bateko kide direla adierazi dute, mankomunitateko bost herritik lautan dago edadetuen elkarteren bat.

Elkarteren bateko kideak



Diru sarreren atalean hainbatek ez du erantzunik eman, Erantzun dutenen artean errenta maila txikiena da nagusi, 401-700 Euro arteko diru sarrera dutela adierazi baitute parte hartzaileen herenak. Gainontzeko diru sarrerak multzokatuz gero, heren bat 1200 eurotik gorako diru-sarrera dutenena da, eta bestea 701-1200 artean daudenena.

Parte hartzaileen diru sarrerak



Laguntza beharrezana edo zerbitzua jasotzen dutela adierazi dute 10 lagunek.

LAGUNTZA	KOPURUA
Eguneko egoitzara/ egoitzara joaten naiz	2
Etxez etxeko laguntza	4
Senitartekoen/ auzokoen borondatezko laguntza dut	4

6. ALDERDI OROKORRAK

Eztabaida taldeetan parte hartzea zabala izan da eta giro onean egin dira saio guztiak. Oro har, parte hartzaileek balorazio ona egin dute eta gustura egon dira prozesu honek euren beharrianak eta bizipenak adierazteko eman dien aukerarekin.

Gustura daude euren herrietan edadetuak, horrela adierazi dute parte hartze taldeak egin diren herri guztietan, lehen baino hobeto bizi direla "osasunak laguntzen digun bitartean". Lasai bizi dira gehienak euren baserrietan, eta ez dute segurtasun falta sentzaziorik, baina kezka eragiten die baserri inguruan basurde, basahuntz eta bestelakoek egiten dituzten kalteek.

Garraioaren atalean askok autonomia maila dute kotxea gidatzeko sasoia duten heinean. Autobusak egon arren, landa ingurunean etxetik autobus geltokira egin beharreko ibilbideak kotxea hartzera behartzen ditu, eta ondorioz autobusa ez da bidaiatzeko modu eraginkorra kasu gehienetan. Autobusa hartuz gero, zenbait kasutan ordu tarte handiak egin behar dituzte itxaroten etxera itzuli ahal izateko.

Euren herrietan aparkatzeko zailtasunik ez izan arren, gehienak erosketak egitera edota medikuarenera joaten direnean arazoak dituzte aparkatzeko, Munitibarrekoak Gernikan, nahiz beste herrietakoak Lekeition.

Galdakaoko ospitalea dagokie mankomunitateko herri guztiei, eta dagoen aparkaleku arazoa dela-eta bertara joatea arazo handia da bai edadetuarentzat, bai euren laguntzaileentzat ere. Arazorik ez izateko, edadetua eta beste bi laguntzaile joan behar izaten dira askotan; batek edadetua laguntzeko besteak aparkatzen duen bitartean. Herrietatik pasatzen den autobusa Galdakaoko ospitaleraino joaten da baina, ematen duen buelta handia eta luzea dela adierazi dute.

Parte hartze talde baten baino gehiagotan adierazi da aurrera begira eskualde mailako landa-taxia ezartzearen aukera egokia izan daitekeela autobusera eta medikuaren kontsultara joateko.

Euren etxean eta etxekeekin bizi dira ia gehienak, eta etxekeon laguntza dutela adierazi dute. Baserria dute bizileku gehienek, eta izan ditzaketen irisgarritasun arazoak beheko solairuan logela jarrita konpondu dutela adierazi dute askok. Hala ere, profesionalen eta zainzaileen taldean adierazi zenez, askok ez du etxea behar bezala egokituta menpekotasun egoeran edo mugikortasun mugatua dutenentzat.

Bakarrik bizi direnak ez dira asko, eta Gizarte Zerbitzuetatik adierazitakoaren arabera, bakarrik bizi eta laguntzarik ez dutenak egoitzetara joan ohi dira euren erabakiz.

Egoitza bi dituzte gertuen; bata Munitibarren, eta bestea Lekeition. Talde bat baino gehiagotan plazaratu da Lekeitioko egoitzaren inguruko kezka, behar bezalako arreta ez dela ematen adierazi baitute.

Bai herrietako taldeetan, bai profesionalen eta zainzaileen taldean eskualdeko edadetuak aktiboak direla eta gizartean parte hartzen dutela nabarmendu dute.

Komunikazio mailan telefono estaldurarekin eta internetekin arazoak daude eskualde osoan. Telebistarekin ere arazoak daude, hainbatetan ez baita ondo ikusten. Antza, postari aldaketa dela eta arazoak daude herri batean baino gehiagotan; helbideak ezagutu ez, berandu iritsi posta... eta antzekoak sarri gertatu ohi dira.

Herritarren parte hartzea atalean gehienek eskaera zuzenean udalean egiteko edo alkatearekin hitz egiteko erraz daukatela aipatu dute.

Osasun zerbitzuen arloan bi dira nagusiki azaleratu diren oztopoak. Bata, guardiako farmaziana da; Munitibarri izan ezik beste guztiei Lekeitio egokitzen zaie, eta zenbaitetan Lekeitioko farmaziarik ez da izaten guardian eta Earaino joan behar izaten dira. Horrek dakarren garraio arazoaz gain, gertatu izan da behar duten medikamenturik ez egotea Eako farmazian. Beste arazoa, odol analisiak edota antzekoak egiteko orduan dutena da, Analisiak egitera Lekeitiara edo Gernikara (Munitibarrekoak) joan behar dira, horregatik odol analisiak herriko anbulatorioan bertan egiteak asko erraztuko lukeela aditzera eman dute edadetuek.

Nabarmentzekoa da profesionalen lan taldean aipatutako arazoa, anbulantziekin dutena. Batetik, larrialdietan arazoak dituzte, anbulantziak galdu egiten baitira baserriak topatzeko orduan. Eta bestetik, errehabilitaziora, kontsulta espezializatuetara eta antzekoetara anbulantziak joan eta etorri behar direnean edadetuek egin beharreko buelta oso luzea da, batzuetan 7 orduko tartea ere egon izan ei da ospitaletik etxera iristerako.

Azkenik finantza segurtasun kontuei dagokionez, urteetan aurreztu izan dutenari esker orokorrean eskualdekoak ondo daudela aitatu dute profesionalen eta zainzaileen lan taldean. Izan ere, euren esanetan hainbatek duen "agraria"ko erretiroko ordainsaria txikia da, eta aurreztu eta gutxi gastatzeari esker egiten diote aurre egungo gastuei.

LEA IBARRA MANKOMUNITATEA

Atal honetan herrietako parte hartze taldeetan adierazitakoen artean mankomunitateari zegozkionak jaso dira, baita profesional eta zainzaileen lan taldean jasotakoak ere.

1. ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Gehienetan baserri inguruetan paseatzeko lekua izaten dute.
- Ez dute beldurrik baserrietan daudenek. Gehienetan ateak zabalik eta trankil egoten dira.

2. GARRAIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Autobusa hartuz gero, Lekeitiora sasoiz heltzen da anbulatorioko analisietarako.
- Jende nagusia familiarekin moldatzen da.
- Herrira euren kotxearekin mugitzen dira, handik kanpora ez dira ausartzen askotan.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Lekeitiora anbulatoriora joan behar denean, aparkatzeko txarto dago eta ez da lekurik egoten.
- Gernikan aparkatzeko arazoak daude.
- Galdakaoko ospitalean aparkatzeko arazo handia dago.
- Garraio aldetik eskas dago, ordu tarte handiak egin behar dira. Adibidez Mendexatik Lekeitiora joanez gero, lau ordu egon behar izaten da hurrengo autobusari itxaroten derrigor.
- Autobusean ibiltzeko osasuna behar da.
- Baserrietatik autobusera iritsi egin behar da arinago, eta horretarako beste garraiobideren bat behar da.
- Galdakaoko Ospitalera autobusak buelta handia, luzea ematen du.
- Galdakaora etxeakoak eramatera bi lagun joan behar dira, bata lagundu eta besteak aparkatzeko. Oso txarto dago aparkatzeko.
- Baserriko jendeak ez du anbulantzia mugitu nahi, behartu egin behar izaten da.
- Etxean zainzaileak gau eta egun, "internak", dituztenek etxeako mugitzen dituzte autobusera edo beste lekuetara.
- Munitibarren ez da erabiltzen Markinarako autobusa. Orduetgia ez ei da ona.

Hobetzeko iradokizunak

- Landa taxia (taxi rural) ondo legoke Lea Ibarra mailakoa. Urte betez edo probatu daiteke Gaba busaren moduan funtzionatuta.

3. ETXEBIZITZA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Badaude laguntzak bakoitzaren baldintzen arabera etxebizitza egokitzeko.
- Diru-laguntza gehienak menpekotasun egoeran dagoena zaintzeko eskatzen dira.
- Laguntza teknikoak lortzea gaur egun irisgarriagoa da.
- Etxez-Etxeko Laguntzaren premia dutenek eskatzen dute.
- Ekonomia arazorik ez daukate gehienetan, patrimonioa kontuan hartzen bada.
- Oizpe egoitzan eguneko estantzia oso prezio eskuragarrian jarrita dago (5€ orduko).
- Koordinazio ona dago gizarte zerbitzuak eta osasun arlokoen artean.
- Eskatzea kostatu egiten zaie, baina eskatu ostean, gero estimatzen da Etxez Etxeko Laguntza.
- Munitibarren egoitzako kanpoaldea ez ei da hain polita (Lekeitiokoarekin alderatuta), baina atentzioa hobea ei da.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Lekeitioko zaharren egoitzan atentzioa ez ei da oso egokia. 60 pertsonarentzako 3 laguntzaile ei daude eta guk han amaitu behar dugunez arazo handia da. Sinadurak biltzen ari dira.
- Lekeitioko zaharren egoitza hutsik, bakarti dago. Atentzio eskasiak eta kudeaketa gabeziak, sentsazio negatiboa ematen digu.

- Auzo batzuetan gaitz dago erabiltzailea kalera eramatea gizarte laguntzaileentzat (baserri inguruetan). Astirik ematen ez duenez, etxe bueltan eman ohi da osteratxoa horrelakoetan.
- Etxeak ez daude egokituta. Eskailerak, komunak, heldu-lekuak egokitu gabe dituzte askotan.
- Baserrietan obrak egitea garestia da, obra handiak izaten dira-eta.
- Baserrietan logela edo komuna beheko solairuan jarri behar izaten da.
- Egoitzara doazen asko konturatzen dira bertara joan aurretik zainketa egokiak ez dituela eduki.
- Gizaburuagako eguneko zentroa ez da erabiltzen.
- Premia askori ez zaio erantzuten jendeak ez duelako eskatzen. Premiak detektatu egin behar izaten dira medikuaren laguntzarekin.

4. BEGIRUNEA ETA GIZARTERATZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Bakarrik gutxi bizi dira, gehienak seme-alabekin bizi dira. Laguntzarik ez dutenak egoitzara joan ohi dira euren erabakiz.
- Bakardadea egon badago, baina ez bakarrik bizi direlako. Berba egiteko, kontuak esateko premia dago askotan.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Gazteak errespetua galtzen ari dira, aldatu egin da lehendik. Gazteek kasurik ez.
- Familiek edadetua babesten dute, batzuek gehiegi. Emakume zaintzaile batzuek euren osasuna ere galtzen dute familiakoak zaintzen.

5. GIZARTEAN PARTE HARTZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Aktiboak dira oso eskualde honetako edadetuak, gizartean parte hartzen dute.
- Edadetuen elkarteak mugitzen dira, aktiboak dira.
- Boluntario aritzen dira hainbat.
- Egoitzan boluntarioak jendea bisitatzera joaten dira.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Euren inguruko erabaki asko eurak kontuan hartu barik hartzen dira.

Hobetzeko iradokizunak

- Bultzatu daiteke ospitaletan/egoitzetan daudenak bisitatzea eta lagun egitea.

6. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Telebista antenarekin arazoa dago eskualde osoan.
- Konpainiaren arabera telefono estaldurarekin arazoak daude.
- Postari aldaketa dagoenean arazoa egon ohi da.

7. LANA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Ez da aipamenik egon.

8. GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEKOAK

Abantailak adineko pertsonentzat

- Finantza segurtasun aldetik orokorrean ondo daude eskualdekoak, aurreztu izan dute eta gutxi gastatu dute. Hileroko diru sarrerak handiak ez izan arren, patrimonioa dute aurreztu dute-eta.
- Oraingo edadetuak lehengoak baino hobeto zainduta daude, profesionalago. Lehen izkina batean egon ohi ziren, orain kalitate hobea dute.
- Etxeko zaintzaileak/langileak topatzeko arazorik ez dago. Ez daukate arazorik baserrietara joateko, eta jendea gustura egoten da tratuarekin, etxekotzat hartzen dituzte.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Guardiako farmazien kontuan arazoak daude, hiru asterik behin Earaino joan behar izaten dira Lekeition ez baitago bat bera ere zabalik. Eta batzuetan haraino joan, eta ez da egon behar izan dutena.
- Analitikak egitera Gernikara/Lekeitiora joan beharra arazoa da.
- Agrariako erretiroa eskasa da.
- Anbulantziak galdu egiten dira GPS koordenadak eduki arren. Eta arazo handia izan ohi da larrialdietan.
- Errehabilitaziotik, kontsultetatik eta ospitaletik datozen anbulantzietan azkena da eskualdea banatzeko, eta buelta oso luzea egin behar izaten dute askotan Durangotik barrena.
- Anbulantziarekin ospitalean alta ordu batean eman eta 8etan ailegatu izan dira etxera, eta kontsultetara ere berandu ailegatu izan dira.
- Osasun Txartel Indibidualarena eragozpen handia da zaintzaileentzat farmaziara joateko, zaintzaile bat baino gehiago badira edo soinean ez badaramazu arazoa da.

Hobetzeko iradokizunak

- Farmaziak etxeko banaketa zerbitzua eskaintzea ondo legoke.
- Larrialdiko farmaziekin dagoen arazoaren aurrean aukera izan daiteke lehenengo 48 orduko dosiak zuzenean medikuak ematea.

7. ALDERDI OROKORRAK HERRIZ HERRI



1. ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Pasealeku ona dauka Amorotok orokorrean.
 - Bidean saltoak jarrita daude autoak arin ez ibiltzeko.
 - Aterpea dago elizapean eta frontoian.
 - Amorotoko anbulatorioan obra egiten ari dira momentu honetan irisgarritasuna hobetzeko.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Urrutia auzoa ez dago ondo paseatzeko, aldatsa dago eta ez dago lur laurik.
- Medikuen kontsultara sartzeko eskailera bat dago eta elizara sartzeko eskailera dago.
- Kotxeak denetarik, arin eta ez arin; baina motorrak arin ibiltzen dira.
- Frontoiko komun publikoek eskailera asko dituzte eta seinalezatu barik daude.
- Segurtasun aldetik, pertsona konkretu baten beldur gara, pertsona arriskutsu bat daukagu eta paseatzeko ere beldurrez gaude.
- Baserri bueltan, basurdeak eta basahuntzek dana apurtzen dute.
- Txakur solteek ardiak hiltzen dituzte, lehen ez zegoen horrelako arazorik.

2. GARRAIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Gehienak norbere kotxean mugitzen dira, bestela etxeokoen konpontzen dira.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Lekeitiora joandakoan, aparkatzea arazoa da.
- Lekeitioko anbulatorio aurrean ez da lekuri egoten aparkatzeko.
- Autobusarentzat ez dago markesinarik ez esertzeko lekuri, eta aterperik ere ez.
- Oletan ez dago autobus markesinarik.
- Autobusa ez dago elbarrituentzat egokituta.
- Taxirik ez daukagu herrian, Lekeition hurbilena.
- Auzoaren arabera alde handia dago garraioan. Oleta auzoan autobusa askoz sarriago pasatzen da.

3. ETXEBIZITZA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Baserrietan bizi gara, eta baserriak egokituta daude, behean logela aterata, dutxa jarrita...

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Dendarik ez dago herrian, Lekeitiora joaten gara erosketak egitera.
- Etxean laguntzeko jendea norberak topatu behar du, ez dago laguntzarik horretarako.
- Lekeitioko zaharren egoitzan atentzioa ez da oso egokia. 60 pertsonarentzako 3 laguntzaile ei daude eta guk han amaitu behar dugunez arazo handia da. Sinadurak biltzen ari dira.
- Munitibarreko egoitzan lekua ez da hain polita, baina atentzioa hobea ei da.

4. BEGIRUNEA ETA GIZARTERATZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Jende nagusiarentzat herri ona da. Denak elkarrekin daude, jende nagusia eta gazteak.
- Denak norbaitekin bizi dira, bi gizon kenduta inor ez da bakarrik bizi.
- Meza bai dela zaharrentzako. Meza ostean elkarrekin egotea ere garrantzitsua da.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Ekintzak egiten dira baina askok ez dute parte hartzen.

5. GIZARTEAN PARTE HARTZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Herri honetan denek hartzen dute parte.
- Herri batzarrak egiten dira eta parte hartzeko aukera daukagu.

6. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Udaletxearen berri herri batzarren eta gutunen bidez jakin ohi da.
- Jubilatuko ere parte hartzen dugu, eta zerbait baldin badugu Udal Batzara etorri eta hitz egin dezakegu.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Telebista antenarekin arazoa dago.
- Telefono estaldurarekin arazoak daude, konpainiaren arabera.
- Postari aldaketa dagoenean arazoa egon ohi da.

7. LANA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Parte hartzeko ohitura egon izan da beti, eta denok elkarri laguntzen diogu.
- Orain udalak egiten du lehen auzolanean egiten zena.

8. GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEKOAK

Abantailak adineko pertsonentzat

- Medikuarekin oso pozik gaude. Hiru egunetan egoten da.
- Diru aldetik daukagunarekin bizi behar, ez dugunez askorik gastatzen ondo.
- Bizimodu hobea dugu orain, edadea eskasa.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Farmaziara Lekeitiora joan behar izaten dugu, eta arazoa da guardiako farmazia Ean tokatzen denean, askotan bertara joan eta han ez da egoten behar duguna.
- Kutxazainik ez dago herrian.



AULESTI

1. ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

Abantailak adineko pertsonentzat.

- Espaloietan jaitsierak badaude.
- Aterpea dago arkupean eta elizapean.
- Argiak ere nahikoa badaude.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Motorrak eta bizikletak ibiltzen dira bidegorrian.
- Espaloia falta da.
- Parkean komunik ez dago; apurtu egiten dituzte.
- Urriolako bidean jarlekuak (AMIAN jasotakoa).
- Gimnasia kanpoan egiteko tramankuluak baleude, gehienok ez genituzke erabiliko (AMIAN jasotakoak).

2. GARRAIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Gehienek gidabaimena dute.
- Gidabaimena ez dutenak etxekeekin konpontzen dira.
- Autobusaren maiztasuna ondo dago.
- Taxia daukagu herrian.
- Autobusa Lekeitiora sasoiz heltzen da anbulatorioko analisisetarako.
- Herrian badago non aparkatu.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Lekeitiora anbulatoriora joatean txarto dago aparkatzeko.
- Markinara ez dago autobusik.
- Baserrietatik herri kaskora jaisteko ez dago garraio publikorik.
- Markesinarik ez dago.
- Baserri etxeetan zaintzaileak dituztenak eurak joan behar izaten dira bila autobus paradara.
- Markinara autobusik balego erabiliko genuke gehienok (AMIAN jasotakoa).

Hobetzeko iradokizunak

- Eguetan Markinara (azoka eguna) autobusen bat jartzea ondo legoke.
- Ondo legoke herri kaskora jaisteko zerbitzua egotea.

3. ETXEBIZITZA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Badago eguneko zentroa Gizaburuagan eta zaharren egoitza Munitibarren.
- Ez dugu beharizanik.
- Etxez etxeko laguntza badago.
- Etxekoen laguntza daukagu.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Herriko etxeak zaharrak dira eta ez daude egokituta gehienetan.
- Gasa pasatuta dago herriko etxeetan.
- Hezetasuna dago etxe askotan.
- Ez dakigu bainuontzia aldatzeko laguntzarik dagoen edo ez.
- Igogailurik ez dago etxe gehienetan.
- Baserrien inguruetan basahuntzek, basurdeek, azeriek... kalteak egiten dituzte.

4. BEGIRUNEA ETA GIZARTERATZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Denetarik dago.
- San Blas elkarteak gimnasia antolatzen du eta edadetuek eta gazteek ere hartu dezakete parte.
- Urtean zehar hainbat ekintza egiten ditugu.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Hotzak gara, gazteak alde batetik eta edadetuok bestetik.
- Jubilatuen elkarteak diru gehiago behar du gauzak antolatzeko.

5. GIZARTEAN PARTE HARTZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Antolatzen diren gauzak ordutegi eta leku egokian egiten dira.
- San Blas elkarteak daukagu.
- Adineko eta pentsiodunentzat antolatzen diren ekimenak nahikoa dela uste du gehiengoak (AMIAN jasota).
- Antolatzen diren ekintzetatik gustukoenak txango laburrak eta bazkariak dira (AMIAN jasoa).
- Gustuko ekintzak antolatzeko laguntasuna eskaintzeko prest daude gehienak (AMIAN jasotakoa).

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Lehen jubilatuen etxea geneukan eta orain ez daukagu. Jendea azkenerako ez zen joaten. Hotza zen eta eskailerak zituen.
- Gehienek ez zuten jubilatuen lokala erabiltzen (AMIAN jasotakoa).
- Jubilatuen etxean eskailerak deserosoak ziren (AMIAN jasotakoa).

Hobetzeko iradokizunak

- Ondo legoke jubilatuen etxea izatea.

6. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Nahi izan duenak eduki du aukera interneten erabilera ikasteko, aukerak egon izan dira.
- KZgunea dago.
- Udaleko aldizkaria ondo dago, ondo heltzen da eta ulertzen da.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Ez dago interneteko estaldura onik. Txarto iristen da.
- Askok ez du internet erabiltzen, ikara ematen die.
- Leku batzuetan telefono estaldura txarra da.
- Postarekin arazoak daude; gutunak ez dira iristen, postaria hiru aldiz aldatu da eta azkenaldian eta abuztuan ez dugu gutunik jaso.
- Jubilatuen elkarteak Eusko Jaurlaritzak tramitazio elektronikoa egitera behartuko du, eta ez dakigu nola konponduko garen.
- Guk egiten dugun euskaratik tartea dago euskara batura. Batua gehiago kostatzen zaigu.

7. LANA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA**Abantailak adineko pertsonentzat**

- Kofradiak arduratzen dira ermita batzuen garbiketaz.
- Parte hartu nahi duenak hartu dezake.
- San Blas elkarteak daukagu.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Auzolanik ez da egiten, askok ez dugu ezagutu ere egin.

Hobetzeko iradokizunak**8. GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNekoAK****Abantailak adineko pertsonentzat**

- Baserrian lan asko egindakoak gara, orain hobeto bizi gara.
- Medikua egunero edukitzen dugu eta botikina astean bi egunetan.
- Gizarte laguntza eskatzen duenari ematen zaio.
- Medikua eta praktikantea primerakoak ditugu.
- Zerbitzuak euskaraz eskaintzen dizkigute.
- Okina egunero eta arraina astean bitan etortzen da baserrira.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- BBK eguaztenetan bakarrik egoten da zabalik, eta kutxazaina bakarrik daukagu gainontzeko egunetan. Kutxazainarekin bakarrik txarto konpontzen gara edadetuok.
- Agrariako pentsioa txikia da, eta alarguntasuna edukiz gero gainera zati bat kendu egiten dizute.
- Batzuek zaintzaileak behar dituzte.
- Autonomoen pentsio txikia da



1. ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Bidegorria dago paseorako.
- Baserri bakoitzak bere argia du.
- Frontoian badago komuna eta dutxa.
- Aterpea dago etxepeetan, frontoian eta elizapean.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Etxe aurrean Ispasterrera doan bidea daukate batzuek eta 10 km orduko jartzen duen arren, 80ra joaten dira kotxeak.
- Hiruartetik Goiketxerako pasealekuan bankua, deskantsu lekuak behar ditugu.
- Trumoa eta tximistak sarri izaten dira, lau bider jotzen du urtean (Agerre inguruan), eta dena deskonektatu behar izaten da.
- Komun publikorik ez dago, eta hiletak egon diren egun batzuetan taberna itxita egon izan da, aurreikuspen falta.

2. GARRAIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Autobusa analisiak egiteko sasoiz iristen da.
- Gehienek gidabaimena daukate eta autonomia dute.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Autobus paradan markesina falta da Aulestirantz.
- Taxia balego hobeto, behintzat telefono bat.
- Lekeition aparkatzea problema da eta batzuk egunero joaten dira.
- Baserritik autobusera kotxez jaitsi behar da eta ez du merezi.
- Autobuseko txoferra espaloitik urrun geratzen bada, txarto igo eta jaisteko.

Hobetzeko iradokizunak

- Jubilatuei taxia merkeago jartzea.

3. ETXEBIZITZA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Baserri bideak ondo daude.
- Lapurreta gutxi egon dira, ezezagunen bat dabilenean abisua pasatzen da.

Oztopoak adineko pertsontzat

- Basurdeak, basahuntzak, azeriak... kalte handia egiten dute baserri inguruan.
- Banakaren bat bakarrik bizi da eta laguntasun premia izan dezake.

4. BEGIRUNEA ETA GIZARTERATZEA**Abantailak adineko pertsontzat**

- Ondo hartzen gaituzte orokorrean.
- Edade diferenteetako jendea nahasian ibiltzen gara Olazar elkarteak antolatzen dituen ekintzetan. San Juanak, Martxoak 8, herri bazkaria, Jubilatuen bazkaria... herri guztiarentzat zabalik.

Oztopoak adineko pertsontzat

- Herrian dagoen tabernan dago problema, batzuk ez gara sartzen. Nork hartzen duen taberna, alde handia dago.

5. GIZARTEAN PARTE HARTZEA**Abantailak adineko pertsontzat**

- Domeketan irteten gara.
- San Blas egunean Abadiñora joaten gara.
- Arazo puntualei erantzuten zaio.
- Laguntza eskatutakoan jendea prest egon izan da.
- Premiak sortu ahala ondo erantzuten da.

Oztopoak adineko pertsontzat

- Aste barruan gutxi irteten da jendea.

6. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA**Abantailak adineko pertsontzat**

- Hitza egunkaria jasotzen dugu.
- Ahoz ahoko komunikazioa dute askotan.
- Gutunontzira iristen zaigu informazioa.

Oztopoak adineko pertsontzat

- Egunkarian gure herriko albiste gutxi daukagu.
- Gutunontziak konpontzea komeni da.
- Herri aldizkaririk ez dago.
- Internet gaizki dabil.
- Telefono estaldura eskasa da.

Hobetzeko iradokizunak

- Internet erabiltzen ikasteko ikastaroak jasotzea komeniko litzateke.

7. LANA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA**Abantailak adineko pertsontzat**

- Jaietan parte hartzen dute.
- Elizan ere parte hartzen dute.
- Idi probak antolatu izan dituzte lehen.
- Eskatutakoan erantzun egiten du jendeak.

Oztopoak adineko pertsontzat

- Auzolana ez da lehenengo bera, orain udalak betetzen du funtzio hori.

8. GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEKOAK

Abantailak adineko pertsonentzat

- Medikamentuen koordainketan merke irteten da. Hileko muga dauka.
- Mediku euskalduna daukagu eta idazkaria ere bai.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Koordainketan ez dira sartzen medikamentu asko, garesti ordaintzen ditugu medikamentu batzuk.
- Kutxazainik ez daukagu herrian.
- Libretarekin funtzionatzeko trabak daude, kutxazainera bidaltzen dute dena.
- Farmazia edo botikinik ere ez dago.
- Guardiako farmazien kontuan arazoak ditugu, hiru asterik behin Earaino joan behar izaten gara Lekeition ez baitago bat bera ere. Eta batzuetan haraino joan eta ez da egon behar izan duguna.
- Agrariako erretiroa eskasa da.



1. ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Bizitzeko toki segurua da, ez da segurtasun arazorik egon.
- Zentroan argi nahikoa dago: etxe guztietan, zona komunetan, etab.
- Eraikin publikoetarako irisgarritasuna egokia da.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Etxeetarako bideak nahiko estuak dira, paseatzeko ez atseginak.
- Oinezkoentzako biderik ez dago baserri gunean.
- Aulki gutxi dago zonalde batzuetan, gainera, daudenak baxuegiak dira (ezin altxa).
- Badenak dauden arren, bizikletak, eta batez ere kotxeak azkar doaz.
- Mendexa behean, Likona auzunean, Kurlutxura joateko bidea gurutzatu beharra. Ez dago zebra-biderik ezta espaloirik ere.
- Kurlutxu auzoa iluna, argi partikularra kenduz gero.
- Kanpin biak seinalaztatu gabe daude, turistak kotxeekin galduta.
- "Eskopeteroak" etxe gunetatik gertuegi dabilta.
- Tiro zarata handia inguruetan.
- Autobus geltoki guztietan ez dago markesinarik (itxaroteko, aterpe gisa, eta...), baten bakarrik dago.
- Orokorrean herrian aterpe gutxi dago.
- Kontenedoreak zonalde batzuetan etxeetatik urrunegi daude.
- Kontenedoreak norberak garbitu ezean, zikin daude.

2. GARRAIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Udan izan ezik, aparkaleku nahikoa dago Lekeitioan.
- Motorra erabiltzeko ohitura indartuz doa, mugikortasunaren mesedetan.
- Senitartekoen laguntzaz konpontzen dira joan-etorrietarako.
- Gehienek gidabaimena eta kotxea dituzte.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Garraio publiko eskasa Ondarroara eta Lekeitiora. Eta larunbatetan eta igandeetan ez dago autobusik.
- Gernikatik Mendexara bueltatzeko transbordo egin beharra dago, ordurako hurrengo autobusak alde egiten du.
- Lekeitiorako 4 autobus daude egunean, 4 ordutik 4 ordura. Eskas geratzen da.
- Lekeition edozein tramite egin eta bueltatu nahi izanez gero, 4 orduko itxaronaldia egin behar da.
- Larunbatetan eta igandeetan ez dago Lekeitiorako autobus zerbitzurik (uztailean eta abuztuan salbu).
- Kotxerik ez daukanak arazoak ditu herrian bizitzeko (zenbait herritar herritik joan behar izan dira).
- Autobuserako irisgarritasuna eskasa (eskailerak) da.

Hobetzeko iradokizunak

- Landa gunetarako taxia emergentzietarako.
- Landa gunetarako taxia edozein beharretarako (kontu administratiboak, osasun kontuak, sozialak, etab.).

3. ETXEBIZITZA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Zahartzarorako etxeak prestatuta dituzte.
- Bainugela egokituta dute.
- Hezetasun arazorik ez, eta egotekotan, sua piztearekin konpondu.
- Eguneko zentroa dago Gizaburuagan.
- Lekeition zaharren egoitza dago.
- Jubilatuen etxea erabiltzeko hitzarmena dago Elizarekin 25 urterako.
- Okina etxez etxe joaten da eta lantzean behin, arraina erosteko aukera dago.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Animaliek kalteak sortu (basurdeak eta orkatzak); zuhaitzak eta ortuak jan edota hondatu egiten dituzte.
- Zuhaitzak etxeetatik gertu egoteak segurtasuna gutxitzen du (animaliak, sua, etab.).
- Ez dago etxebizitza sozialik larrialdi kasuetarako (errefuxiatuak, indarkeria jasandako emakumeak, etab.).
- Ez dago babes ofizialeko etxerik (gazteak herritik kanpora etxe bila).
- Lekeitioko zaharren egoitza hutsik, bakarti dago; atentzio eskasia eta kudeaketa gabezia, sentsazio negatiboa.

4. BEGIRUNEA ETA GIZARTERATZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Leku atsegina da bizitzeko.
- Harreman onak herritarren artean.
- Gazte jendearekin ere tratua egokia.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Etxe gehiago dauden arren, herrian parte hartze gutxi. Jendeak ez du elkar ezagutzen.
- Gero eta erdara gehiago entzuten da.

5. GIZARTEAN PARTE HARTZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Jubilatuen etxean gero eta afiliatu gehiago.
- Antolatzen diren gauzetan, batzuek, parte hartzen dugu; gazteekin, umeeekin, behar denarekin.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Herriko ekintzetan, orokorrean parte hartze gutxi.
- Jubilatuen etxean afiliazioa gorantz badoa ere, partaidetza txikia.
- Denda txikirik ez dago.
- Bi taberna baina askotan biak itxita egoten dira.

Hobetzeko iradokizunak

- Udalaren bitartez, tabernariak egutegia ados dezatela, egunero taberna bat gutxienez zabalik egon dadin.
- Bingoa antolatzea.

6. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA**Abantailak adineko pertsonentzat**

- Eskualdeko Hitza daukate.
- Urteko egutegia jasotzen dute.
- Wifi publikoa heltzen da auzo batzuetara.
- Postariarekin arazorik ez.
- Udaletxean harrera ona egiten diete. Bertako langilearekin pozik daude.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Udal informazioa nahiko eskasa (plenoak noiz diren, etab.).
- Interneterako konexioak joan-etorrian ibili ohi dira.
- Telefono konexioak, lekuaren arabera, ahulak.
- Endai inguruan Eitb ez da ikusten.
- Wifi publikoa ez da leku guztietara iristen.

Hobetzeko iradokizunak

- Jubilatuen elkartean ordenagailua eta wifia egotea.
- Mankomunitatean iritzi politiko kontrajarriak egonik ere, elkar ondo hartzea.

7. LANA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA**Abantailak adineko pertsonentzat**

- Nahi duenarentzat badago aukera boluntariotzan ibiltzeko.

8. GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEKOAK**Abantailak adineko pertsonentzat**

- Medikua astean bitan etortzen da (bestela Amorotora).
- Medikuarekin oso gustura daude.
- Larrialdiak Lekeition egotearekin konforme gaude.
- Etxez etxeko zerbitzua nahikoa da.
- Ez da inor diru behar latzarekin ikusten.
- Senitartekoen laguntzaz moldatzen gara.
- Familiakoak zaindu eta aldi berean lan egin izan dugu.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Farmaziarik ez dagoenez, Lekeitiora joan beharra. Larunbat arratsaldean eta igandean Eara, bestela Gernikara.
- Lau etxebizitza egoera oso kezagarrian daude, irisgarritasunik gabe daude (anbulantzia, eguneko zentroko furgoneta edota suhiltzaileak ezin pasa), zubiaren maldagatik.
- Pentsioen igoerarik ez dago.
- Pentsioen igoera eskasegia, bizi gastuen igoerarekin alderatuta.
- Neska bat dago inork kasurik egin barik eta buruko osasun arazoak ditu.

Hobetzeko iradokizunak

- Landa eremuetako taxa behar dugu. Ondo legoke osasun zerbitzuetarako.



1. ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Bidegorria badago.
- Gerrika auzoan pasealeku ederra dago.
- Erresidentziarako noranzkoan espaloia eta bankuak daude.
- Bizikletekin ez da arazorik egoten.
- Elizapean eta frontoian aterpea dago.
- Auzoetaraino argi nahikoa.
- Dagoen argiarekin konpontzen gara.
- Leku segurua da bizitzeko, baita baserri auzuneak ere.
- Irisgarritasuna ona da eraikin publikoetan (udaletxea, medikua, botika).
- Komun publiko bat dago eta konpondu dutenetik garbi egoten da eta zabalik.
- Udaletxeko komunak ere erabilgarri daude.
- Zentroaren eta baserri guneen artean diferentzia egotea normala da.
- Bideak ondo daude.
- Familia bakoitzak bere etxe inguruko bideak, arketak, etab. garbitzen ditu.
- Oizpe egoitzaatik anbulatoriora anbulantzian joaten dira.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Mendirako irteera guztiak aldapatsuak dira.
- Lekeitiorantz errepidetik oinez joatea arriskutsua da.
- Lekeitiorantz doan bidegorria aldapatsuegia da.
- Aulestirantz ez dago espaloirik ezta bankurik ere.
- Ez dago aterperik.
- Zentrotik erresidentziara bidean argi gutxi, intentsitate baxukoa.
- Auzoen kanpoaldeko baserri guneetan ez dago argirik.
- Txakurrak solte eta mozalik gabe dabilta.
- Txakur kakekin arazoa dago.
- Baserri bideetako kanalak garbitu gabe egoten dira, bideak erreka izateraino.
- Oizpe egoitzaatik herrira txarto dago, espaloi batetik bestera pasatu behar da, igotzeko ere konplikatu egiten da.
- Munitibarren zebrabidea pasatzeko (kontsultara joateko) estu ibiltzen dira, ez dago ondo.
- Plaza labana da berdinarekin eta izotzarekin.
- Espaloiak bi aldeetan daude, baina batzuek espaloia okupatuta daukate; ate aurrean mahaiak, txakur etxeak jarrita.
- Gimnasilekuan (kalekoan) belarra dago.
- Etxebizitza batzuk jauzi beharrean, abandonatuta daude.

2. GARRAIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Etxekoek mugitzen dituzte, kotxez.
- Autobusez ondo konpontzen dira, bi orduro egoten dira Gernikara.
- Goizeko seietatik gaueko bederlatziak arte daukate autobusa.
- Familia ez dagoenean, auzokoen laguntzarekin mugitzen dira.
- Dagoen markesina ondo dago.
- Autobusak gurpildun aulkientzako prestatuta daude (egon ezean, ordezkoko zerbitzua eskaintzen dute).

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Familiakoekin ez bada, mugitu ezinik geratzen dira.
- Medikua renera joateko bi ordu arinago joan beharra.
- Baserrietakoek autobusa hartzeko kotxea hartu beharra.
- Gernikan aparkatzeko arazoak.
- Caldakaoko ospitalean aparkatzeko arazoak.
- Autobusetako eskaileren malda handiegia.
- Munitibarren ez da erabiltzen Markinarako autobusa. Orduetgia ez ei da ona.

Hobetzeko iradokizunak

- Gernikara autobus gehiago egotea komeni da.

3. ETXEBIZITZA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Beharra egon denean prestatu dituzte etxeak beraien neurrira (igogailua, etab.).
- Baserrietan lekua dagoenez moldatu egiten da dagoena beharren arabera.
- Orain ez dabil "eskopeterorik" Gerrikan (lehengoaren aldean).

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Bainuontzia izatea arazoa da.
- Animaliek (azeriak, basurdeak, orkatzak) arazoak sortzen dituzte.
- Txakur pila bat dago herrian (40 erroldatuta), zaunkak, zaratak, kakak arazoa dira.

4. BEGIRUNEA ETA GIZARTERATZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Igandeetan batzen dira, auzoetakoak meza ostean.
- Herri lasaia da bizitzeko.
- Beti dago tabernaren bat zabalik.
- Dendarekin konpontzen dira. Gainera, taberna ere badenez, orduetgi zabala du.
- Okina eta arrain saltzailea joaten dira baserrietara.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Produktu izoztuak saltzen dituen uda hasieratik ez da baserrietatik pasa.

5. GIZARTEAN PARTE HARTZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- San Pedrotan herri bazkaria dago.
- Odola ateratzeko aukera herrian egotea.
- Irteeretan ere parte hartzen dute.
- Nagusientzako kirol gunea egingo dute.

6. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Herri aldizkaria daukate.
- Hitza eta egunkariak dauzkate.
- Udaletik iristen diren gutunekin eta beste medioekin nahikoa dute.
- Herriko informazioa emateko erabiltzen den letra tipoa eta tamaina egokiak dira.
- Kz-gunea dago.
- Zentroan Internet konexio ona dago.
- Udalarekin gertuko harremana dago, kalean ere atenditzen dituzte.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Eremuaren arabera, telebista pixelatu egiten da.
- Taberna eta etxe barruetan ez dago telefono estaldurarik.

7. LANA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Abantailak adineko pertsonentzat

- Kontu puntualetarako biltzen dira.
- Eskursioetan parte hartzen da.
- Etxe inguruko kontuak garbitzen eta konpontzen dituzte.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Auzolanak galdu egin dira.
- Auzo batzarretara jende gutxi joaten da.

Hobetzeko iradokizunak

- Auzolanak berreskuratu, antolatu daitezke.

8. GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEKOAK

Abantailak adineko pertsonentzat

- Herrian erresidentzia egotea ona da (ospitaletik irteerakoan errehabilitazioa egitera bertara joan denik, badago).
- Medikua astean hirutan joaten da, bestela inguruko herrietan ere artatzen dituzte.
- Farmazia kontsulta egunetan egoten da zabalik.
- Farmazia itxita dagoenean Aulestira joaten gara. Guardiako Markina edo Gernikan izaten da.
- Gizarte langileak, familiak ongi ezagutzen ditu, lan ona egiten du.
- Dependentsia tramiteak ez dira konplikatuak izan.
- Ekonomia; dagoenarekin aurrera egiten dakite, daukatena ondo kudeatzen ikasi dute.
- Kutxazain automatikoa dago, dirua atera edota mugikorra kargatzeko, ondo konpontzen dira. Bestela, Markina edo Gernikara joan ohi dira.

Oztopoak adineko pertsonentzat

- Analitikak egitera Gernikara joan beharra.
- Eskatu den guztietan ez da gizarte zerbitzu konkretua jaso (zaintza lanetarako laguntza).
- Herrian dagoen erresidentzia, zein ingurukoak pribatuak dira eta garestiak.
- Medikua urtean hirutan aldatzen da.

Hobetzeko iradokizunak

- Odola ateratzeko aukera herrian egotea.

8. BALORAZIOA

Talde eragilean prozesuaren balorazioa egin da (antolaketa, saioak, lekua, ordutegia, komunikazioa eta dinamizazioa). Oro har prozesuaren alderdien balorazio positiboa egin da, baita parte hartzearena eta emaitzarena ere. Komunikazio aldetik, udalen gutuna eta ahoz-aho egitearena eraginkorra izan dela azpimarratu da.

Iraupena ondo egon dela adierazi dute, eta jendea ez dela nekatu. Emandako azalpen eta laguntza ondo egon zirela adierazi dute.

Parte hartze taldeetan ere, parte hartzaileek gustura egon zirela adierazi dute. Talde eragilean jasotakoaren arabera, *“Jendeak ez zekien zertara zetorren eta ondo aditu zuten, konfiantza eman zen”, “Jendea eskertuta eta pozik zegoen”*.

9. AURRERA BEGIRAKOAK

Diagnostikoa identifikatu diren aldagaiekin, datozen urteotako ibilbidea zehaztuko da Herri Lagunkoia proiektuaren talde eragilean. Diagnostiko fasea amaitu ostean, hurrengo zeregina hirurteko ekintza plana diseinatzea da eta aurrerapausoak hautemateko adierazleak finkatzea.

Aurrera begira mankomunitate mailako talde eragileaz gain, herriz herrikoa ere egitea egokia litzatekeela adierazi da talde eragilean, eskualde mailako plangintza eta herriz herrikoa egoki uztartzeko.

10. ERANSKINAK

ERANSKINA I | INKESTAK

PARTE-HARTZAILEAREN GAINEKO INFORMAZIOA

Zeure buruari buruzko informazio pixka bat behar dugu, borondatez parte hartu behar duten pertsonen ezaugarrien deskribapen orokor bat egin ahal izateko. Erantzun, mesedez, informazio formulario honi, zurekin edo zure egoerarekin hobekien datorren erantzuna adierazita edo erantzunean idatzia. Galderarik baduzu, egiozu taldearen koordinatzaileari. Zure datu pertsonalak, borondatez emango dituzunak, ikerketa egiteko baino ez ditugu erabiliko eta izenik gabe tratatuko dira, pribatutasuna bermatzeko.

1. Jaiotze-urtea: _____

2. **Sexua:** Emakumea Gizona

3. **Egoera, enpleguari dagokionez:**

Erretiroduna Langilea, lanaldi osoan Langilea, lanaldi erdian

4. **Gizarte boluntariorazan aritzen zara?**

5. **Zure ustez, egun duzun osasun egoera da:**

Bikaina Ona Normala Ahula Oso ahula

6. **Eguneroko jarduerak egitea zailtzen dizun premiarik edo mugarik duzu?**

Bai Ez Baten bat _____

7. **Ikasketen maila:**

- Lehen Hezkuntza, amaitu gabe
- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Erdi mailako unibertsitate ikasketak
- Goi mailako unibertsitate ikasketak

8. **Ikaslea zara? Adinekoentzako prestakuntza jardueretan parte hartzen duzu?**

9. **Etxebizitza, alokatutakoa da ala zurea?**

- Alokaturakoa
- Alokairu babestukoa
- Neurea (hipotekarekin - hipotekarik gabe)

10. **Esan diezagukezu norekin bizi zaren etxean?**

- Bakarrik bizi naiz
- Bikotekidearekin
- Seme-alabekin
- Beste senitarteko batzuekin
- Beste aukera batzuk (pisukidea, etxeko laguntza)

11. **Etxebizitza horretan bizi zaretenon kopurua:**

12. **Gizarte etxeren batera edo adinekoen egoitzaren batera joaten zara erregularitasunez?**

13. **Elkarteren batekoa zara?**

14. Maila sozioekonomikoa. Hileroko diru-sarreraren maila zein den adiez diezagukezu? Jarri X bat dagokion laukitxoan.

- 400 euro baino gutxiago hilean
- 401 eta 700 euro artean hilean
- 701 eta 900 euro artean hilean
- 901 eta 1.200 euro artean hilean
- 1.201 eta 1.600 euro artean hilean
- 1.601 euro baino gehiago hilean

15. Zerbitzu hauetakoren bat jasotzen duzu?

- Etxez etxeko laguntza
- Telelaguntza
- Eguneko egoitzara, egoitzara joaten naiz
- Senitartekoen/auzokoen borondatezko laguntza dut

Mila esker zure denborarengatik!

Baimena ematen dut borondatez emandako datu hauek "Adineko Pertsonetikiko Hiri eta Komunitate Lagunkoia" proiektuaren ikerketarako erabiltzeko,

EGUNA _____ **SINADURA(borondatezkoa)** _____

ERANSKINA II | DUBLINEKO ADIERAZPENA

DUBLINEKO 2013KO ADIERAZPENA, ADINEKOEKIN ADISKIDETSUAK DIREN HIRIEI ETA ERKIDEGOEI BURUZ

Europar Batasuneko Irlandaren lehendakartzaren pean herrialde horretako hiriburuan, Dublinen, 2013ko ekainaren 13tik 14ra, zahartze aktibo eta osasungarriari buruz egindako gailurra dela eta, Europako hiri, udalerrri, erkidego eta erregioetako maila handiko alkateok eta ordezkari politikook honako hau adierazi nahi dugu aho batez:

Jarduketa balio eta printzipioak

1. OMEk zahartze aktiboaren inguruan dituen politiken egituraren oinarritzen gara; izan ere, politika horietan zahartze aktiboa honela definitzen da: "osasun, partaidetza eta segurtasun aukerak optimizatzeko prozesu gisa, bizi kalitatea hobetzeko, pertsonak zahartu ahala; horrela, pertsonak jabetzen dira bizitza osoan ongizate fisiko, sozial eta mentala lortzeko duten potentzialaz, betiere gizartean parte hartu ahal izateko haien premien, nahien eta gaitasunen arabera eta, aldi berean, laguntza behar dutenean babes, segurtasun eta zaintza egokia eskainiz. (Zahartze aktiboa: Arauzko markoa, Ginebra, 2002. OME)."

2. Honako hauek guztiak bete-betean babesten ditugu: adinekoekin eta haien babes eremuekin izan beharreko laguntasunari buruzko lehentasun estrategikoaren eremuko printzipioak eta ekintzak, OMEk Europar zahartze osasungarriko estrategiaren eta ekintza planaren barruan (Europar Zahartze Osasungarria izateko OMEren Estrategia eta Ekintza Plana, 2012-2020); Nazio Batuek (NBE) adineko pertsonentzat ezarritako printzipioak eta haien independentziari, duintasunari, autorrealizazioari, partaidetzari eta zainketei buruzko alderdietan jarritako arreta (Nazio Batuen Printzipioak Adinekoen Alde, 1991); eta Zahartzeari buruzko Nazioarteko Ekintza Planaren lehentasunezko orientazioak, betiere adinekoekin laguntzeko, adinekoen garapena, osasun hobekuntzak eta ongizatea babesteko eta laguntza emango duen ingurune egokia bermatzeko (Zahartzeari buruzko Nazioarteko Ekintza Plana, Madril, 2002).

3. OMEk hiriei begira egindako lanaren balioa eta laguntza aintzatesten ditugu adinekoekin adiskidetsuak diren erkidegoei dagokienez, bai eta OMEren orientazioa ere hiriak eta erkidegoak adinekoen adiskidetsuagoak izango diren ingurune bihurtzeko; horretarako, adinekoen premiak kontuan hartzen dira zortzi dimentsiori erreparatuz: eraikitako ingurunea, garraioa, etxebizitza, gizarte partaidetza, gizarte begirune eta inklusioa, herritarren partaidetza eta enplegurako laguntza, komunikazioa eta erkidegoa, eta osasun zerbitzuak; eta jarraibide horien arabera jardungo dugu, Europako testuinguruari egokitzeko aproposak baitira. (OME, Adinekoekin Adiskidetsuak diren Hirien Gida, 2008)

4. Jakitun gaude zein garrantzitsua den gure lanari begira OMEk Europarentzat duen strategiaren markoa, gobernu eta gizarte bidezko ekintzak babesten baitira osasunari eta ongizateari dagokienez, eta bultzatzen dituen lehentasunezko lau eremuak onartzen ditugu: bizi zikloaren ikuspegia eta pertsonen jabetasuna; Europaren osasun erronka nagusiei aurre egitea; pertsonengan arreta jartzen duten sistemak sendotzea eta erkidego erresilienteak eta laguntza inguruneak sortzea. (Osasuna, 2020: Gobernuetan eta Gizartean Osasunaren eta Ongizatearen aldeko Ekintzei Laguntzako Europako Marko Politikoa. OME, 2012)

5. Ontzat ematen dugu OMEk sustatutako Hiri Osasungarrien Europako Sarearen bidez eta Adinekoekin Adiskidetsuak diren Hirien eta Erkidegoen Mundu Sarearen bidez sinergiak sortzea, eta haien printzipioak eta oinarritzko balioak geure gain hartzen ditugu: Zagrebeko Adierazpenean hiri osasungarrien alde jasotako ekitatea, jabetasuna, laguntza, elkartasuna eta garapen iraunkorra. (Hiri Osasungarriei buruz Zagreben egindako Adierazpena. OME, 2009)

6. Oso-osoan animatzen eta babesten dugu Zahartze Aktibo eta Osasungarriaren Berrikuntzaren bidez Jarduteko Europako Elkarrekin (EPI-AHA), bai eta kideek hartutako konpromisoak ere, 2020. urteari begira EBko herritarren bizitza osasungarria (HLY) batez beste bi urtez luza dadin, betiere osasun egoeraren hobekuntzaren bidez, adinekoen bizi kalitatearen bidez, osasun sistemen efizientzia eta iraunkortasunaren bidez eta zahartzearekin eta osasunarekin zerikusia duten produktu eta zerbitzu berritzaileetan diharduen industria europarraren lehiakortasunaren sustapenaren bidez. (EIP-AHAREN Exekuzio Plan Estrategikoaren bultzada, Europar Batzordea, 2012)

7. EIP-AHaren barruan eta OMEk adinekoekin adiskidetsuak diren inguruneak garatzeko betetako zereginean oinarrituz, oso-osoan babesten dugu adinarekin (adinekoekin) adiskidetsuak diren ingurune, eraikin eta hirien berrikuntzarako Ekintza Plana, bai eta, bereziki, hirien, erregioen eta udalerrien sare tematiko baten sorkuntza ere, betiere ikuspegi berritzaileak ezartzeko konpromisoarekin, ingurunea adinarekin lagungarriagoa izan dadin, horren barnean IKTren irtenbideen erabilera sartuz. D4 Ekintza Plana: Adinarekin Adiskidetsuak diren Eraikinen, Hirien eta Inguruneen Berrikuntzak. EIP (AHA D4 Ekintza Taldea, 2012)

8. EY2012ren lorpenetan (Zahartze Aktiborako eta Belaunaldien arteko Elkartasunerako Urte Europarra) hartzen dugu inspirazioa; izan ere, ekimen horrek zahartze aktiboa sustatu du honako eremu hauek jorratuz: enplegua eta gizartearen partaidetza eta bizimodu independentea, pertsonak beren bizitzaren kontrolaz jabe daitezen posible zaien denbora-tartean zehar.

Aukerak eta erronkak

9. Dublinen 2013an adinekoekin adiskidetsuak diren hiriei eta erkidegoei buruz egindako adierazpenetik abiatuz eta haren printzipioak, balioak, estrategien ikuspegiak, markoak, adierazpenak, jarraibideak eta ekimenak aintzat hartuz, honakoa adierazten dugu:

- Gure bizilekuak, gure ingurune fisiko, sozial eta kulturalak, eragin handia du bizi garen eta zahartzen garen moduan. Gure bizitzetan “lekuak” duen esanahia ez da balioetsi behar. Eraikitako inguruneak eta auzoetako sareek eragina duten bizi kalitatean eta mendekotasunaren eta independentziaren arteko aldea zehatz diezaiekete pertsona guztiei, baina bereziki zahartzen ari direnei. Lekua ezin bereiz daiteke gure nortasun zentzutik eta hori errealitate bat da adin guztietako pertsonentzat, horien barruan adinekoak sartuz.
- Hiriak beharrezko bitartekoak, baliabideak eta banaketa sistemak izan behar dituzte, herritar guztien aukera berdintasuna, ongizatea eta partaidetza bultzatzeko, horien barnean adineko pertsonak aintzat hartuz. Urbanizaziorako joerak hazten jarraitzen duen arren, Europako adineko asko landa giroko erkidegoetan bizi dira, batzuetan erkidego urrunetan. Komunitate horiek adineko herritarren osasuna, ongizatea eta partaidetza sustatzeko gaitasuna ere garatu behar dute.
- Europako Zahartze Aktiborako OMEren 2012-2020ko Ekintza Planaren estrategiarekin bat etorritik, adinarekin adiskidetsua den ingurune bat honakoa da: zerbitzuen hornitzaileek, agintaritzak publikoek, agintari komunitarioek, buruzagi erlijiosoek, enpresaburuek eta herritarrek gizakion dibertsitate handia eta guztientzat osasunak duen garrantzia onartzen dituzteneko ingurunea; horretarako, gizakion inklusioa eta partaidetza bultzatzen dute bizimodu komunitarioaren eremu guztietan, bizimoduaren gaineko erabakiak eta hautuak errespetatzen dituzte eta malgutasunez erantzuten diete premiei eta lehentasunei.
- Erkidegoei ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen arloan bideratutako planifikazioa funtsezko kezka da gobernu maila guztientzat, eta planifikazio horrek kontuan izan behar du biztanleriaren zahartzea, bai eta adinekoek euren premia zehatzen asebetetze mailan baliabide garrantzitsu gisa bete dezaketen zeregina ere. Planifikazioan eta erabakiak hartzeko orduan adineko pertsonen esku-hartze aktiboa bermatzeko mekanismoak oinarritzekoak dira adinekoekin lagungarriak izango diren irtenbideak erdiesteko.
- Adinekoak sari bat dira Europako gizartearentzat, eta garrantzitsua da balio hori aintzat hartzea eta European belaunaldien arteko elkartasun loturen indarguneak aprobetxatzea; izan ere, adin guztietako pertsonak elkarrenganako ikuspegi positiboa dute eta belaunaldien arteko adostasuna dago jarraitu beharreko bideari buruz.
- Adinekoekin adiskidetsua izango den Europar Batasuna eraikitzeko ekintzek nabarmen indar ditzakete “2012-2020ko Europa. Hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzaile baterantz” strategiaren dimentsio asko. Europak IKTen berrikuntzan eta lehiakortasunean dituen indarguneetan oinarrituz, aukera ezin hobea dago inklusioa eta e-osasuna sustatzeko, Europako adinekoen eta erkidegoen bizi kalitatea eta osasuna hobeto ditzaketen prozesu, produktu eta zerbitzu berrien ezarpena azkartzeko eta osasun laguntzarako eta gizarte zaintzetarako sistemen eraginkortasun eta iraunkortasuna hobetzeko.

- Adierazpen hau euskarri bat izan daiteke etorkizuneko lankidetzak akordio bati begira eta aldaketa demografikoari buruzko europar ituna osa dezake, betiere OMEk adinekoekin adiskidetsuak diren politiken inguruan egindako lanetik abiatuz eta garraio publikoaren, IKTen eta hiri adimendunen arloan esperientzia berritzaileak eraikiz eta bilduz.

Konpromisoak

10. Beraz, hiri eta erkidego sinatzaileek jarraian azaltzen diren konpromisoak hartzen dituzte; konpromiso horiek “adinekoekin adiskidetsuak diren Europako hiriei eta erkidegoei buruzko Dublineko 2013ko adierazpen” gisa ezagutzen dira; hala, honako konpromisoak hartzen dira:

i. “Adinekoekin adiskidetsuak diren Europako hiriei eta erkidegoei buruzko Dublineko 2013ko Adierazpena” sustatzea (Dublinen 2013an egindako adierazpena) nazio nahiz nazioarteko foroetan, betiere adierazpenaren balioen, printzipioen eta premisen aldeko atxikimendua bultzatuz beharrezko plan, programa eta baliabideen bidez, adierazpen horretan ezarritako konpromisoak praktikara eramateko zentzuzko epe baten barruan.

ii. Erregioetako eta tokian tokiko eragile guztiekin lankidetzan jardutea, Dublineko Adierazpenak Europako adinekoekin adiskidetsuak diren hirien eta erkidegoen gainean hartutako konpromisoak oso-osorik aplikatzen laguntzeko, horren barnean OMEren Europako Bulego Erregionalarekiko lankidetzak sartuz, bai eta adinekoekin adiskidetsuak diren inguruneak garatzeko konpromisoa duten hirien sarearekiko lankidetzak ere (adinarekin lagungarriak diren hirien eta komunitateen OMEren mundu sarearen zati gisa). Horrek berekin dakar urte batzuetako ebaluazio eta hobekuntza etengabeko ziklo bat abiarazi beharra, inguruneak adineko pertsonekin lagungarriagoak izan daitezen.

iii. Tokian tokiko eta erregioetako kanal eta sareen bidez komunikatzea hirien eta erkidegoen artean, adineko herritarrei begira aukera eta eskubide berdintasuna bultzatzeko aurrerapenak bizkor daitezen eta babesa izan dezaten eta haien bizimoduak hobetzeko politiken eta jardunen inguruko aurrerapenei buruzko jakintza parteka dadin.

Babesa emateko konpromisoa

11. Hiri eta erkidego sinatzaileek, aldi berean, jarraian azaltzen diren ekintza zehatzak bultzatzeko konpromisoa hartzen dute euren erantzukizunaren eta bideragarritasun ekonomikoaren barnean, betiere epe luzeari begirako iraunkortasuna indartzeko planifikazio tresnen barruan jaso daitezen:

- Herritar guztiek adinekoen eta euren eskubideen, premien eta potentzialtasunen gainean izan beharreko sentsibilizazioa sustatzea eta ematen duten laguntza sozial, ekonomiko eta kulturala agerian jartzea .
- Adinekoen ikuspegiak eta iritziak balioetsiak eta entzunak izango direla bermatzea eta herritarrei begira bideratutako partaidetza prozesuak eta egiturak ziurtatzea horietan ere adinekoek partaidetza egokia izan dezaten erabakiak hartzerakoan eta berrikuntzaren eta aldaketaren sorkuntzan aktiboki esku hartzerakoan.
- Guztiontzat inklusiboak, partekagarriak eta desiragarriak izango diren hiri eremuak eta toki publikoak garatzeko beharrezko neurriak hartzea, adinekoak baztertu gabe, eta erabilera publikoa duten eraikinek adin guztietako erabiltzaileen duintasuna, osasuna eta ongizatea sustatuko dutela ahalbidetzea, betiere zahartuz doan gizarte baten premia aldakorrak asebetetzeko helburuari egokitzuz.
- Adin guztientzako auzoen eta erkidegoen garapena bultzatzea eta babestea, anitzak, seguruak, iraunkorrak eta integratzaileak izan daitezen eta adinekoentzako kalitatezko etxebizitza egokiak izan ditzaten. Arreta berezia jarriko da adinekoen premietan, batik bat lagundutako bizimoduari eta egoitzetako eta zahar-etxeetako zaintzari dagokienez, horietan duintasunak eta autonomiak arrisku handiagoak izan baititzakete.

- Guztion eskuragarri izango diren garraio publikoko sistemak ezartzeko beharrezko neurriak hartzea, betiere adinekoak aintzat hartuz eta garraiobideen artean izan daitezkeen aldeetan “hausturarik” sortu gabe. Garraio sistemek garraio indibidualaren erabilera ere sustatu eta erraztu beharko dute, hala nola bizikleta eta adinekoen gidatzea. Horiek zailago bihurtu ahala, alternatiba partikularrak ahalbidetu beharko dira, esate baterako ordain daitezkeen taxiak edo autoaren erabilera partekatua; alternatiba horiek sistema publikoarekin konektatu beharko dira.
- Guztion eta, nola ez, adinekoen partaidetza sustatzea komunitatearen gizarte eta kultur bizitzan, lorgarriak, egokiak eta inklusiboak izango diren eta erkidegoan integratuko diren ekimen eta jardueren sorta zabala eskuragarri jarritz. Horren barnean belaunaldien arteko jardueren sustapena sartuko da.
- Enpleguaren eta boluntariora aukeren garapena sustatzea eta babestea guztioi eta adinekoei ere begira, eta horren laguntza positiboa balioestea eta etengabeko ikaskuntzaren aukerak bultzatzea, pertsona nagusiek beharrezko jabekuntza lor dezaten eta haien autonomia bultzatzea.
- Laguntza komunitarioko zerbitzuen eta osasun zerbitzuen kalitatezko multzo oso eta integratua bermatzea, adinekoentzat irisgarria eta lagungarria izango dena eta guztion esku egongo dena, horren barnean prebentzio programak jasoz, bai eta osasunaren sustapena, komunitatean oinarritutako laguntza zerbitzuak, ospitaleko lehen artapena, errehabilitazio zerbitzuak, egonaldi luzeko egoitzak eta bizitzaren amaierako zainketa aringarriak bilduko dituzten egitasmoak ere.

Dublin, 2013ko ekainaren 13a

HIRIETAKO ETA TOKIAN TOKIKO ALKATEEN ETA ERKIDEGOETAKO NAHIZ ERREGIOETAKO AGINTARIEN SINADURAK:

